HAUR HIZKERA

Hizkuntza guztietako hiztunek, menderik mende, haurrekin hitz egiteko modu berezia garatu dute. Euskaldunok ere belaunaldiz belaunaldi haur txikiekin komunikatzeko hizkuntza erregistro bat garatu dugu, haiek erraz ahoskatzeko eta ulertzeko moduko hitzak erabiliz, hizkuntza pixkanaka eta modu egokian ikas dezaten. Horregatik, haur hizkeran errepikatzen diren soinuak eta silabak topatuko ditugu, animalien eta bestelakoen hotsak, edo *tt, ll, ñ, x* bezalako ahoskera xamurra duten hitzak.

Egia da azken urteotan haur hizkera gutxiago erabiltzen dela. Alde batetik, gaur egungo guraso asko eskola bidez euskaldundu dira, eta txikitan ez dute aukerarik izan hizkera hori ikasteko. Beste alde batetik, hizkera horren kontrako jarrera ere zabaldu da, haurren hizkuntz garapenerako kaltegarria delakoan.

Tradizioz beti erabili izan ditugu horrelako hitzak eta ez dugu inolako arazorik izan txikitan *ñañan* erabiltzeko eta koskortzean *jan* esateko. Hizketa modu berezi horrek, gainera, hizkuntzarekin lotura afektibo berezia sortzen du.

ANIMALIAK
Animales / Animaux





AHATEA:	Pato:	Canard :	KUA-KUA
ARDIA:	Oveja:	Brebis :	BE, BEBE
ASTOA:	Burro:	Àne :	PUTXITXO, ARRE-ARRE
AZERIA:	Zorro:	Renard :	AXELKO, AXERKO
BEHIA:	Vaca:	Vache :	MU
BILDOTSA:	Cordero:	Agneau :	ÑOÑO
INTSEKTUA,	Insecto,	Insecte ,	MAMORRO,
ZOMORROA:	Bicho:	Bête :	MOMOA
HEGAZTIA:	Ave:	Oiseau :	PIPI, PIO-PIO
KATUA:	Gato:	Chat :	PITXITXI, MIAU-MIAU, MIXINO
MANDOA:	Mulo:	Mulet :	POTXITXO, TRAKATAN
OILARRA:	Gallo:	Coq :	KUKURRUKU, PIPI
OILOA:	Gallina:	Poule :	PURRA-PURRA, PIPI
TXAKURRA:	Perro:	Chien :	TTOTTO, UAU-UAU, GUAU-GUAU
TXERRIA:	Cerdo:	Cochon :	KURRIN-KURRIN, TUXA
TXITA:	Pollo:	Poussin :	PIPI, PIO-PIO
ZALDIA, BEHORRA:	Caballo, yegua:	Cheval , jument :	POTXITXO, T(R)AKATAN-T(R)AKATAN, ARRE-ARRE









EKINTZAK
Acciones / Activités



ANIMALIA BATEN GAINEAN IBILI:	Andar encima de un animal:	Chevaucher un animal :	TAKATAN-TAKATAN
AURPEGIA ZIMURTU:	Arrugar la cara:	Froncer les sourcils :	ITSUSI-ITSUSI EGIN
AUTOAN, TRAKTOREAN IBILI:	Andar en algún vehículo:	Conduire une voiture , un tracteur :	BURRUN-BURRUN
BAINATU:	Bañarse:	Prendre un bain :	PUTXU-PUTXU, PLISTI-PLASTA
BERO EGON:	Tener calor:	Avoir chaud :	FU, FUFU
BESOETAN HARTU:	Coger en brazos:	Prendre dans ses bras :	AUPA
BIZKAR GAINEAN ERAMAN:	Llevar en la espalda:	Prendre sur son dos :	ARREKONKON
BUKATU:	Terminar:	Terminer :	PAPO, AKO
DANTZATU:	Bailar:	Danser :	DANTXA-DANTXA
EDAN:	Beber:	Boire :	XURRUPA EGIN, XURRUPAKA-XURRUPAKA EGIN
ERORI:	Caerse:	Tomber :	PUNPA
ERRE:	Quemar(se):	Se brûler :	FU, XIXI, FUFU
ESERI:	Sentarse:	S'asseoir :	TTUTTU, APATX, TTAKA, APA
ETZAN:	Tumbarse:	Se coucher :	ETXAN-ETXAN
EZETZ ESAN:	Negar:	Dire non :	AKO, PAPO
EZKUTATU ETA AGERTU:	Esconder(se) y aparecer:	Se cacher et apparaître :	KUKU
HAIZEA EMAN:	Soplar:	Souffler :	FU EGIN, FUFU EGIN
HASERRE EGON:	Enfadarse:	Être en colère :	MUTTUR, MUTTUR EGON
HAUTSI:	Romper:	Casser :	KRAS-KRAS

HOZKATU:	Morder:	Mordre :	AKIKI EGIN, KOXKA EGIN
IBILI:	Andar:	Marcher :	TTAKA-TTAKA, TTIPI-TTAPA
IRENTSI:	Tragar:	Avaler :	TTUKUN-TTAKUN
INJEKZIOA JARRI:	Poner una inyección:	Faire une piqûre :	TXISTA EGIN
IRRI EGIN:	Reir:	Rire :	ANJU EGIN
JAN:	Comer:	Manger :	ÑAÑAN
JANTZI:	Vestir:	S'habiller :	TTITT
JO, ZIGORTU:	Pegar, castigar:	Frapper, punir :	TAS-TAS, TTAS-TTAS
JO (ATEA):	Llamar (a la puerta):	Toquer à la porte :	KAX-KAX
KALERA ATERA, PASEATU:	Pasear, salir a la calle:	Sortir , se promener :	APAPA, ANJU, APAPAX
KATUKA IBILI:	Gatear:	Marcher à quatre-pattes :	POTIKOKA IBILI, TTAKA-TTAKA
KOLPATU:	Golpear:	Blesser :	KUNKA, KANKA, KAXKA
LAZTANDU:	Acariciar:	Caresser :	MATTE-MATTE (EGIN)
LO EGIN:	Dormir:	Dormir :	LOLO, MOMO, LLOLLO
MARGOTU:	Pintar:	Peindre :	PINTTA-PINTTA
MIN HARTU:	Hacerse daño:	Se faire mal :	PUPU, PAPU
MOZTU:	Cortar:	Couper :	KAXKA-KAXKA, KIX-KIX
MUSU EMAN:	Besar:	Faire un bisous :	PA EMAN
PIXA EGIN:	Mear:	Faire pipi :	PIPI, PIX-PIX, PIS-PIS
SALTO EGIN:	Saltar:	Sauter :	TTALTTO
SARTU:	Meter:	Entrer :	TTITT
TXALO EGIN:	Aplaudir:	Applaudir :	TTALO-TTALO, TXALO-TXALO
TXUPETEA AHOAN EDUKI:	Tener el chupete en la boca:	Sucer la tétine :	TTUKU-TTUKU
URETAN IBILI:	Andar en el agua:	Se baigner :	PLISTI-PLASTA
ZABUAN IBILI:	Columpiarse:	Faire de la balançoire :	TILIN-TALAN, TTILIN-TTALAN
ZUTIK IBILI:	Andar de pie:	Se mettre à marcher :	TTUTTI, TTUTTIK, TTAKA-TTAKA
ZUTITU:	Levantarse:	Être debout :	AUPI, AUPA

GORPUTZ ATALAK
Partes del cuerpo/ Parties du corps

AHOA (1):	Boca:	Bouche :	MUTTUR
ALUA (2):	Vagina:	Sexe :	POTTOTTA
BARRABILAK (3):	Testículos:	Testicules :	KOXKOLLOAK, POTTOKOAK
BULARRA (4):	Pecho:	Poitrine :	TTITTIAK
ESKUAK (5):	Manos:	Mains :	ATXAPARRAK
HORTZAK (6):	Dientes:	Dents :	KIKAK
IPURDIA (7):	Culo:	Cul :	IPULLI, POPA
OINAK (8):	Pies:	Pieds :	XANGOAK
SABELA (9):	Tripa:	Ventre :	XORRO
ZAKILA (10):	Pene:	Pénis :	PITITO, PITTILINA, PITTITTO
ZILBORRA (11):	Ombligo:	Nombril :	TIRRIN, TTIRRIN



JANARIAK ETA EDARIAK
Comidas y bebidas / Aliments et boissons





ARRAUTZA:	Huevo:	Oeuf :	KOKO
EDARIA:	Bebida:	Boisson :	MAMA
ESNEA:	Leche:	Lait :	LELE
GOZOKIA:	Dulce:	Friandises :	KOKO, TOTO, TTOTTO
HARAGIA:	Carne:	Viande :	TXITXI
JANARIA:	Comida:	Aliment :	ÑAÑAN
OGIA:	Pan:	Pain :	PAPA
SAGARRA:	Manzana:	Pomme :	LALA
TXOKOLATEA:	Chocolate:	Chocolat :	KOKO
URA:	Agua:	Eau :	MAMA

BESTELAKOAK
Otros / Autres

AMAREN BULARRA:	Pecho materno:	Les seins :	TTITTI, TITI
ARRANBERA:	Sonajero:	Hochet :	KILIX-KOLOXKA, TXINTXIN
BIBEROIA:	Biberón:	Biberon :	TUTU, TTUTTU
EZKILA:	Campana:	Cloche :	DILIN-DALAN
EZTULA:	Tos:	Toux :	TUJU-TUJU
GAUZA BEREZIA:	Cosa especial:	Chose spéciale :	PITXI
GAUZA ZIKINA, TXARRA:	Cosa sucia, mala:	Chose sale :	KAKA



HAURRA:	Niña/o:	Enfant :	ÑIÑI, NINI
IBILGAILUAK:	Vehículo:	Véhicules :	BURRUN-BURRUN, BRUN-BRUN, POPO
INJEKZIOA:	Inyección:	Piqûre :	TXISTA
IZAKI BELDURGARRIA:	Ser temible, terrorífico:	Monstre :	KOKO, MAMU, MOMO
JOSTAILUAK:	Juguetes:	Jouets :	PITXIAK
KILIKAK:	Cosquillas:	Chatouilles :	KILI-KILI, KILLIKI, KILLI-KILLI
KOLPEA:	Golpe:	Coup :	KUNKA, KANKA, KAXKA
LOREA:	Flor:	Fleur :	PITXIA, PITXILITA
MINA:	Dolor:	Douleur :	PUPU
MOTOTS:	Coleta:	Chignon :	KIKI, TTONTTOR
MUSIKA:	Música:	Musique :	TATXIN-TATXIN, TTUN-TTUN
PANPINA:	Muñeca:	Poupée :	ÑIÑI, NINI
PILOTA:	Pelota:	Ballon :	PONPA
PUZKERRA:	Pedo:	Pet :	PURRUT
SUA:	Fuego:	Feu :	FU, FUFU
SUZIRIA, SU ARTIFIZIALAK:	Cohete, fuegos artificiales:	Fusée , feux d'artifice :	TXISPUN
TINBREA:	Timbre:	Sonnerie :	TXIRRIN, TIRRIN-TIRRIN
TRENA:	Tren:	Train :	TXU-TXU
TURUTA, TRONPETA:	Trompeta, corneta:	Trompette :	TUTU
TXUPETEA:	Chupete:	Tétine :	TETE, TTETTE, PETETE
URA, BAINERA:	Agua, bañera:	Eau, baignoire :	PLISTI-PLASTA, PLASTA-PLASTA
ZABUA:	Columpio:	Balançoire :	DILIN-DALAN, TILIN-TALAN
ZAPATAK:	Zapatos:	Chaussures :	TTATTAK, PAPATTAK